BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4908

EBAZPENA, 2026ko irailaren 30ekoa, Kulturako sailburuordearena, 2026. eta 2027. urteetan euskal kultura-ondarea babestera bideratutako ikerketa-lanak egiteko dirulaguntzak emateko dena.

Lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2026ko ekainaren 3ko Aginduaren bidez (2026ko ekainaren 15eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 111. zk.), 2026. eta 2027. urteetan Euskal Kultura Ondarearen babesaren eremura bideratutako ikerketa-lanak egiteko dirulaguntzen deialdia arautu zen.

Deialdiaren 15. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, Balorazio Batzordeak, 2026ko uztailaren 27an egindako bileran, eskabideak aztertu eta proiektuak ebaluatu zituen, deialdiaren 17. oinarrian ezarritako balorazio-irizpideetan oinarrituta, dagokion balorazio-txostena egiteko.

Jakinarazi ondoren, akats materialak atzeman ziren, eta akats horiek zuzendu egin dira, akatsak zuzentzeko ondoz ondoko hiru ebazpenen bidez, interesdunei behar bezala jakinarazita. Ebazpen honek hasierako ebazpenaren testu kontsolidatua erreproduzitzen du, egindako zuzenketekin.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean zerrendatzen diren eskatzaileei ondoren zehazten diren dirulaguntzak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean ageri diren pertsonei dirulaguntza ukatzea, eranskinean bertan ematen diren arrazoiengatik.

Hirugarrena.– Proposatutako onuradunek agindu arautzailean ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorrak ere.

Laugarrena.– Diruz lagundutako proiektuak 2026ko ekitaldian hasi beharko dira. Amaitzeko epearen azken eguna 2027ko urriaren 30a izango da, eta ezin izango da gauzatzeko epea atzeratu edo luzatu data horietatik aurrera.

Bosgarrena.– Dirulaguntza arautzen duen Aginduaren 21. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, dirulaguntza honela ordainduko da:

a) Lehenengo ordainketan dirulaguntzaren % 50 ordainduko da, dirulaguntza eman ondoren, berariaz uko egiten ez bazaio.

b) Gainerako % 50a gastua justifikatu ondoren ordainduko da, dirulaguntzaren indarraldia amaitzean eta eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, baina inola ere ez 2027. urtea baino lehen.

Seigarrena.– Emandako dirulaguntzen justifikazioa eta likidazioa Aginduaren 22. eta 23. oinarrietan xedatutakoaren arabera egingo da, hurrenez hurren. Nolanahi ere, justifikazio-dokumentazioa aurkezteko azken eguna 2027ko azaroaren 13a izango da, egun hori barne.

Zazpigarrena.– Ebazpena pertsona eta erakunde interesdunei jakinaraztea.

Zortzigarrena.– Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen arabera, jakinarazpen-ondorioekin eta guztiek jakin dezaten.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, interesdunek jakinarazpena jaso edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 30a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

I. ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Eskatzailea	Esp. kod.	Proiektuaren izenburua	Diru-laguntzaren diru-kopurua	1. ordainketa (2026)	2. ordainketa (2027)
Asociación para el estudio científico del Arte Prehistórico Investigarte	007-KOI-2026	(Ad-IArte) Adimen artifizialaren integrazioa Paleolitoko artearen ikerketan: grabatuen analisia bere erreprodukzio esperimentalaren eta ildoen morfometriaren bidez	11.900,00	5.950,00	5.950,00
Benedet, Verónica Andrea	017-KOI-2026	Documentación y análisis del Ensanche de Vitoria-Gasteiz. Valoración, catalogación y diseño de un régimen de protección	15.000,00	7.500,00	7.500,00
Camarero Arribas, Cristina	003-KOI-2026	Biografías de sal, piedra y arcilla: cultura material, movilidad y género en la protección arqueológica del Valle Salado de Añana	14.760,00	7.380,00	7.380,00
Hueto Escobar, Alicia	014-KOI-2026	Arquitectura tradicional con muros entramados en el País Vasco: análisis comparado de instrumentos urbanísticos y herramientas de protección	13.960,00	6.980,00	6.980,00
Ikusmira Ondarea Sociedad Limitada	006-KOI-2026	Feismo y brutalismo. ¿Qué pasa con vosotros? Recontextualización patrimonial en la arquitectura del ultimo cuarto del siglo XX	15.000,00	7.500,00	7.500,00
Iterbide S.C.	010-KOI-2026	El vidrio en el País Vasco. Origen y evolución desde época romana hasta la Edad Media a partir de contextos arqueológicos (siglos I-XV)	15.000,00	7.500,00	7.500,00
Mates Luque, José Manuel	016-KOI-2026	Arqueología intermareal: documentando los pecios del cementerio de barcos de la marisma de la playa de Santiago (Zumaia)	15.000,00	7.500,00	7.500,00
Narbarte Hernandez, Josu	005-KOI-2026	Kultur paisaia bernakularrak Euskal Autonomia Erkidegoan: sernak	15.000,00	7.500,00	7.500,00
Pérez de la Peña, Gorka	009-KOI-2026	La adecuación litúrgica al Concilio Vaticano II en Bizkaia, 1937-1975: arquitectura y artes decorativas. Un patrimonio a revalorizar. El caso del Gran Bilbao	15.000,00	7.500,00	7.500,00
Romano Vallejo, María	002-KOI-2026	La forja artística en Bizkaia entre los siglos XVI y XIX	15.000,00	7.500,00	7.500,00
Solaun Bustinza, Jose Luis	001-KOI-2026	Bizkaiko zubiak. Puentes de Bizkaia. Análisis histórico constructivo de los puentes anteriores a 1900.	15.000,00	7.500,00	7.500,00
Tarriño Vinagre, Antonio	019-KOI-2026	Los lugares de captación de sílex prehistórico del País Vasco como yacimientos de un patrimonio arqueológico desconocido.	9.380,00	4.690,00	4.690,00
Tortajada Montalva, Eva	011-KOI-2026	Arquitectura vernácula de la Cuadrilla de Montaña Alavesa: estado de conservación, vulnerabilidad y criterios para su protección patrimonial	15.000,00	7.500,00	7.500,00

Eskatzailea	Esp. kod.	Proiektuaren izenburua	Diru-laguntzaren diru-kopurua	1. ordainketa (2026)	2. ordainketa (2027)
Varón Hernández, Félix Rafael	012-KOI-2026	Calzadas de época romana en la Cuadrilla de Añana: investigación para la protección	15.000,00	7.500,00	7.500,00
		Guztira:	200.000	100.000	100.000

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKAERAK

Eskatzailea	Kod. esp.	Proiektua	Arrazoia
Erkizia Martikorena, Aintzane	013-KOI-2026	Fedearen eta estatus sozialaren trofeoak Buru Santuen bidaia Renaniatik Euskal Herrira XVI. eta XVII. mendeetan	1
Fernández Jubín, Sara	004-KOI-2026	El estudio histórico-artístico como fundamento para la protección del patrimonio cultural. Caso de estudio: cuarteles de Loiola	2
Mendaza Riaño, Josu	015-KOI-2026	Transferencias artísticas entre el País Vasco y el Atlántico europeo	2
Santolaria Del Campo, Oihana	008-KOI-2026	Villas de fundación del País Vasco. Memoria científica y patrimonio: bases para un nuevo marco de investigación	2

(1) Gutxieneko puntuazioa gainditu du, baina partida erabilgarria agortuta geratu da.

(2) Lortutako puntuazioa ez da iritsi dirulaguntzarako eskubidea izateko agindu arautzailean ezarritako gutxienekora (Deialdiaren 15.1 oinarria).